



ZER DA LAN EGITEN HASTEKO JAKIN BEHAR

DUZUNA



Laguntzailea:





KONTRATUAREN INGURUKO INFORMAZIOA

Kontratua enpresa eta zeure artean egiten den ituna da eta horren arabera egingo duzu lan bere zuzendaritzapean eta soldata ekonomiko baten truke. Langile eta enpresarioen arteko akordioa da, eskubideak eta betebeharrak ezartzen dituena.

Garrantzitsua da oso sinatzen duguna irakurtzea zein konpromiso hartzen dugun eta zerren truke jakiteko.

Iraupena: kontratuaren hasiera data ematen du eta hau aldi baterakoa bada honen iraupena.

Probaldia: Aldeetako edozeinek kontratua hautsi dezake epealdi honetan (enpresak edo zu zeuk) inolako arrazoirik gabe. Kontratatu zaituzten maila profesionalaren arabera desberdina izan daiteke epealdia (gehieneko luzapena bi eta sei hilabete artekoa da).

Epealdi horretan langileak bere lanpostuari dagozkion eskubide eta betebeharrak izango ditu.

Lan Hitzarmenak hemen aipatzen diren edo aipatu gabe geratu diren elementuetako batzuk hobetu ditzake, esaterako, soldata taulak edo eta lanaldia. Lan Hitzarmena, lan egiten dugun, lurraldearen eta enpresaren ekintzaren menpe dago.

Lanaldia: Eguneko lanaldiaren gehieneko iraupena 9 ordukoa da eta urteko ordu kopuruak ezin du asteko 40 orduko batuketaren emaitza baino handiagoa izan. Hala ere zeure Lan Hitzarmen Kolektiboa begiratzea gomendatzen dizugu, askotan Langileen Estatutuko gutxieneko baldintzak hobetzen dituelako.

18 urtetik beherako langilentzat gehieneko lanaldia eguneko 8 ordukoa da prestakuntzari dagokion denbora gehituta hala ezartzen duten hitzarmenetan eta ezin izango du gaueko lanaldirik egin.



Soladata: Lanaren truke jasotzen duzun ordainketa da eta oinarritzko soldata eta osagarriek osatzen dute. Osagarriak enpresa edo lanaren egoeratik jasotzen dituzun plusak dira, gauekotasuna, toxikotasuna, baliagarritasuna eta garaiz iristea esaterako.

Kontuan izan behar duzu gauza desberdinak direla soldata gordina eta soldata garbia. Jasotzen duzun kopurua soldata garbia da. Soldata gordinetik Gizarte Segurantzako kotizazioa eta zergak ordaintzeko kentzen zaizun kopuruarekin geratzen zaizuna da soldata garbia.

Gizarte Segurantzari egiten diozun ekarpenak estaldura medikoa eta istripu kasuan ekonomikoa bermatzen dizu. Gainera langabeziako prestazioa, erretiroa eta etengabeko prestakuntza finantzatzen ditu. Estatuak bi bideen bitartez egiten du zerga bilketa: batetik soldata gordinaren zati proportzionala kentzen dizu eta bestetik, enpresak zuzenean estatuari ordaintzen diona.

Kontratuan soldata jasotzeko maiztasuna ezarriko da. Ez da inoiz hilabete baino gehiagokoa izango.

Ez sinatu kontraturik aurretik irakurri gabe.

Kontratuaren kopia eskatu.



EZARTZEN DEN HIZTARMEN KOLEKTIBOA

Kontratuarekin batera zure lan baldintzak jasotzen dituen erreferentziazko agiria lan hitzarmen kolektiboa da. Langileek aukeratutako ordezkariak eta enpresako ordezkariaren artean egindako negoziazioaren fruitua.

Beste elementu batzuen artean, hitzarmenak, lanaldiaren iraupena eta banaketa, soldata, oporraldia eta bizitza pertsonala eta lanekoaren arteko bateratze neurriak ezartzen ditu. Sektore hitzarmenak (ehungintza, prentsa, publizitatea ...), estatu mailakoak eta lurraldeko hitzarmenak daude eta batzuetan enpresa mailako hitzarmenak ere sinatzen dira. Hauek normalean sektore hitzarmeneko baldintzak hobetzen ditu eta lantoki edo negozioko errealitatera egokitzen dira.

Lanean hasten zaren bezain laster eskura ezazu ezartzen zaizun hitzarmen kolektiboaren kopia bat. Gogora ezazu hitzarmen bat edo bestearen aplikazioa enpresaren jardunaren araberakoa dela eta ez zeure prestakuntzaren araberakoa.



NOLA IRAKURRI ZEURE NOMINA

Nominak ezartzen du soldataren hileko ordainketa.

Bi kopia eman behar dizkizute sinatzeko soldata jasotzen duzun momentuan, bat enpresarentzat eta bestea zuretzat. Soldata banku transferentzia bitartez ordaintzen badizute ez duzu xertan ezer sinatu beharrik.

Nominak dauzkan atalak hauek dira:

- **Goiburua:** zeu, langile moduan eta enpresa identifikatzen zaituzte.
- **Zortzapenak:** kobratzen diren kontzeptuak dira (oinarrizko soldata, osagarriak, aparteko orduak...).
- **Kotizazio-oinarria:** Gizarte Segurantzari ordaindu behar zaion kuota kalkulatzeko ezartzen den formula.
- **Kenkariak eta likidazioa:** soldata gordinetik hartzen den kopurua Gizarte Segurantzako kotizazioa eta PFEZaren atxikipena ordaintzeko.



OPORRAK ETA BAIMENAK

Hitzarmen kolektiboak edo kontratuak ezartzen dute zenbatekoa den oporrak disfrutatzeko duzun egun kopurua, eta ez da inolaz ere 30 egun baino motzagoa izango.

Enpresa eta langilearen artean adostuko da hitzarmen kolektiboaren arabera oporraldia noiz izango den.

ZURE OSASUNAREN ZAINZA LANTOKIAN

Zeure lantokian segurtasuna eta osasunaren babes eraginkorrerako eskubidea daukazu.

Era berean, enpresarioak lan arriskuen prebentziorako beharrezko neurriak hartu behar ditu derrigor, batez ere, arriskuen ebaluazioa, informazioa eta prestakuntza, kontsulta eta parte hartzea eta larrialdi eta berehalako arrisku larri kasuetarako.

Gogoratu: Ez dira, inolaz ere, langileak izango babes eta segurtasun neurriak ordaintzen dituztenak (prestakuntza, norberaren babeserako ekipoa...)



LANGILEEN ORDEZKARITZA

Sindilatuak dira boluntarioki eta etengabe koordinatzen diren erakundeak Gobernu eta enpresarioen aurrean lan baldintzak hobetu eta interes ekonomiko eta sozialak defendatzeko helburuekin. Lan hau enpresa arloan egiten dutenak ordezkariak dira eta euren existentzia eta betebeharrak legeak babesten ditu.

Ordezkarri sindikalak –demokratikoki hautatzen dena– enpresa bateko langileen legezko ordezkariak irudikatzen du. Bere lana sindikatuari afiliatutako pertsona eta orokorrean langileen interesen defentsa da.

Galdetu langileen legezko ordezkarietaz enpresan; ordezkari sindikalak enpresaren aurrean ordezkatzeko eta zure interesak babesteko daude.

Zeure burua, langile moduan, langileen ordezkari moduan aldarrikatu dezakezu beti ere enpresan sei hileko antzintasuna badaukazu.





KALERATZEA, DIMISIOA EDO KONTRATUA

Zeure kontratuaren amaiera, zu eta enpresaren arteko lan harremana bukatzen denean, hainbat arrazoiengatik izan daiteke: bi aldeen akordioagatik, justifikatu gabeko arrazoiengatik, justifikatutako arrazoiengatik, heriotzagatik, kontratatzailearen erretiro edo ezintasun iraunkorragatik; ezinbestekoa izateagatik; edo arrazoi ekonomiko, tekniko, antolaketakoak edo ekoizpenekoak beste batzuen artean.

Kaleratzea: diziplinazkoa edo bidegabekoa izan daiteke.

Diziplinakoa bada arrazoiak justifikatuak eta langileen ardurapekoak dira: diziplina eta obediencia falta, berandu iriste iraunkorra, nahita sortutako edo iraunkorra den ekoizpenaren murrizketa edo mozkeria dira esaterako diziplina kaleratze baten adibideak. Bestetik, bidegabeko kaleratzea kontratua amaitu baino lehen enpresarioak lan harremana bukatzea erabakitzen duenean eta zu ados ez zaudenean gertatzen da. Justifikatu gabekoa izango da orduan eta arreta handiagoa jarriko diogu.

Egin beharko zenukeena hau litzateke:

- Langileen legezko ordezkartzarengana jo eta hala badagokio abokatuarengana.
- Adiskidetze eskaera aurkeztu: Agiria aurkezteko 20 egun baliodun dituzu. Agiria enpresarioak zeure alegazioak kontuan hartu ditzan egiten da. Akordiorik lortzen ez baduzue, epaiketara joango zarela esateko era bat da.
- Adiskidetze ekimena ezin bada aurrera eraman enpresa salatu behar duzu Lan Arloko Epaitegian.
- Epaia: Auzia ospatu eta gero epaileak 5 egun dauzka erantzuteko. Eraitza halakoa izan daiteke:
 - Deuseza: Enpresarioa zu berriro hartzera eta kaleratsetik epaia jaso duzun arte galdutako soldata ordaintzera derrigortua dago.
 - Bidegabekoa: Enpresara bueltatu edo kalte ordainak emateko aukera.
 - Bidezkoa: diziplinazko kaleratzeen moduan gertatzen da; ez zenuke kalte ordainak jasotzeko eskubiderik

Horrelako egoeratan Euskadiko Langile Komisionen laguntza eta aholkularitza izango duzu.

KITOA ETA LIKIDAZIOA

Kontratua bukatzen zaizunean disfrutatu gabe geratu zaizkizun opor egunei dagokien soldata jaso behar duzu (geratuko balitzaizkizu) eta aparteko ordainsarien zati proportzionala.

KALTE ORDAINAK

Kalte ordainak kontratua justifikatu gabeko arrazoiengatik bukatzen denean edo epaitegiak bidegabeko kaleratzea izan dela ezartzen duenean jasotzen duzun diru kopurua da.

LANGABEZIAKO PRESTAZIOA

Langabeziagatiko prestazioa jasotzeko Gizarte Segurantzaren gutxienez 12 hilabetez kotizatu behar duzu. Jasotzeko, lana galdu eta hurrengo 15 egunetan bete behar duzu eskaera orria izena eman duzun enplegu bulegoan.

Jasoko duzun kopurua eta gehienezko iraupena kotizatu duzun denbora eta horren kopuruaren arabera izango da.



